



Noah Sealh (1854) indiarrak, 'azal gorri' arrazakoak, utzitako mezuaren zatiak

...
Lurraren zatia gara eta halaber,
lurra gure zatia da. Lore
usaintsuak gure arrebak dira;
oreina, zaldia, arrano handia;
horiek dira gure anai-arrebak.
Mendi harkaitsuak, zelai hezeak,
zaldi-gorputzaren beroa eta
gizona, guztiok familia berekoak
gara.

...
Erreka eta errekaetoetatik
irristatzen den ur gardena ez da
ura bakarrik, gure arbasoen
odolaren adierazgarri ere bai.

...
Uraren gurguraia nire aitonaren
ahotsa da.

...
(Gizon zuriak)
bere ama, lurra, eta bere anaia,
zerua, erosi, uztiatu, eta saldu
daitezkeen objektuak bezala
erabiltzen ditu, ardiak edo
koloredun lepokoak bezala.
Gizakiaren jangurak lurra irentsi
egiten du, atzean basanortu idorra
utziz.

...

...
Gizon zuriaren herrietan ez dago
leku lasairik, ez eta zuhaitzen
hostoak nola zabaltzen diren edo
insektuak nola dardara egiten
duten entzuteko tokirik ere.

...
Basati bat naiz eta ezin dut ulertu
nola makina keetsu bat guk bizirik
irauteko akatzen dugun bufaloo
baino garrantzitsuagoa den.

Gizona animaliarik gabe zer
litzateke? Animalia guztiak
akatuak balituzte, gizona
bakartasun espiritual sakonak
jota hil egingo litzateke. Animaliei
gertatukoak, gizonari gertatuko
baitzaio. Guztia dago elkarri
loturik. Hauxe dakigu: lurra ez
dagokio gizakiari, gizakia lurrari
baizik.

...
Lurrari gertatutako zaion guztia,
lurraren seme-alabei gertatuko
zaie.

...



Ermuko Udala
INGURUGIRO ARLOA

1239 - Herriaren fundazioa.

XIII-XVI. - Mendeen tartean - Nekazaritza eta
abeltzaintza apur bat. Burdingintzaren
artisansautzako jarduna hasi egiten da.

1774 - Frantzezen inbasioa. Herria suntsitzen da.

1866 - Lehenengo estolderia lanak.

1884 - Ikuztegi publikoa egiten da Izelaieta kalean.

1886 - Lehenengo lanak trenbidea egiteko.

1893 - Herriko argiaren sisteman
argindarra jartzen da.

1910 - San Pelaioiko iturburutik etxeetara ura
ekartzen da.

1931 - Zuhaitzak landatzen dira Zubibarrian
(Gipuzkoako Etorbidean).

1960-80 - Standa demografikoa, 3.029tik 18.900
biztanletara pasatuz.

